



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2008ko urriaren 23a

92. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

- Foru lege proiektua, toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko funtsaren zenbatekoa eta banatzeko formula ezartzen dituen. Osoko Bilkurak bazter utzi ditu osoko zuzenketak (3. or.).
- Foru lege proiektua, Nafarroako ekonomia suspertzeko 2009-2011 urteetarako neurriei buruzkoa. Osoko Bilkurak bazter utzi du osoko zuzenketa (3. or.).

C SAILA:

Bestelako proposamenak:

- Lege proposamena, Hauteskundeetako araubide orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 50. artikulua aldatzekoa. Osoko Bilkurak aintzat hartua (4. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren jarduera politikoak abiaraz ditzan gaur egungo krisialdi ekonomikoari aurre egiteko, parametro batzuei jarraikiz. Osoko Bilkurak onetsia (5. or.).
- Erabakia. Horren bidez, deklaritzen eta premiatzen da ezen Nafarroako Unibertsitate Publikoan egun aztertzen ari diren ikasketa-eskaintzaren berregituraketan, eta kasua bada NUPeko ikasketa-eskaintzari buruz egin beharreko eztabaida-foroan, Giza Zientzietako karrera ezartzeko aukera azter dadin. Osoko Bilkurak onetsia (6. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da administrazioak edonolako entitateekin sinaturiko itunetan klausula bat sar dezan urteroko maiatzaren 31 baino lehen zenbait kontabilitate agiri aurkeztera behartzen dituen. Osoko Bilkurak onetsia (7. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da sentsibilizazio kanpaina bat egin dezan toki entitateek hezkuntzaren arloan duten eginkizunari buruz eta “Hiri Hezitzaileak” bezalako programei buruzko informazio kanpaina bat egin dezan. Osoko Bilkurak onetsia (8. or.).

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gizarte zerbitzuen arloko araudia gara eta doitu dezan, senar-emazteen ondare-ondasunen eta baliabide ekonomikoen titularkidetasuna babeste aldera. Osoko Bilkurak onetsia (8. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da osasun arloan oinarritzko zerbitzuak doan eman diezazkien Nafarroan bizi diren herritar guztiei, eta osasun zerbitzuak berdintasun baldintzetan eta bizilekua kontuan hartu gabe eskuratu ahal izatea berma dezan. Osoko Bilkurak onetsia (9. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Sodenari eska diezaion bere egoitza soziala Mendillorriko jauregian eraikitzeko asmoa bertan behera uzteko. Osoko Bilkurak onetsia (10. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da atxiki dakion Osasun eta Kontsumo ministroak autonomia erkidegoei eskainitako osasunaren aldeko itunari. Osoko Bilkurak onetsia (10. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten dio Ingurumen Ministerioari eta, zehazki, Kalitatearen eta Ingurumen Ebaluazioaren Zuzendaritza Nagusiari Gasteiz-Castejón-Muru Artederretako 400 kW-eko linea elektrikoaren aurka dagoela, ingurumen- eta paisaia-intereseko guneei eraginen dizkien kalteak direla eta. Osoko Bilkurak bazter utzia (11. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Estatuko Gobernua premiatzen da abeltzaintza-sektorearen eskaerei erantzun diezaien, bereziki 2008ko Gizarte Segurantzako kuotak barkatzeari dagokionari. Osoko Bilkurak bazter utzia (11. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da diru nahikoa jar dezan abeltzaintzako ustiategi eta sistema iraunkorretarako laguntzak arautuko dituzten jardueretarako. Osoko Bilkurak bazter utzia (11. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru lege proiektua, toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko funtsaren zenbatekoa eta banatzeko formula ezartzen dituen.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZI DITU OSOKO ZUZENKETAK

Nafarroako Parlamentuak, 2008ko urriaren 16an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen bazter uztea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak eta Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkeztutako osoko zuzenketak, Toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko funtsaren zenbatekoa

eta banatzeko formula ezartzen dituen Foru Lege proiektua dela eta.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 131.5 artikuluan ezarritakoarekin bat, aipatu proiektua Toki Administrazioiko Batzordera igorri da.

Iruñean, 2008ko urriaren 23an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Foru lege proiektua, Nafarroako ekonomia suspertzeko 2009-2011 urteetarako neurriei buruzkoa.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZI DU OSOKO ZUZENKETA

Nafarroako Parlamentuak, 2008ko urriaren 16an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen bazter uztea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak Nafarroako ekonomia suspertzeko 2009-2011 urteetarako neurriei buruzko Foru Lege proiektuari aurkeztutako osoko zuzenketa.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 131.5 artikuluan ezarritakoarekin bat, aipatu proiektua Ekonomia eta Ogasun Batzordera igorri da.

Iruñean, 2008ko urriaren 23an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

C saila:
BESTELAKO PROPOSAMENAK

Lege proposamena, Hauteskundeetako araubide orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 50. artikulua aldatzekoa.

OSOKO BILKURAK AINTZAT HARTUA

Legebiltzarrak, 2008ko urriaren 16an egindako Osoko Bilkuran, Hauteskundeetako araubide orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 50. artikulua aldatzeko lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker

Batua foru parlamentarien elkarteak aurkeztu eta 2008ko maiatzaren 23ko 48. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko urriaren 23an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren jarduera politikoak abiaraz ditzan gaur egungo krisialdi ekonomikoari aurre egiteko, parametro batzuei jarraikiz.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2008ko urriaren 16an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren jarduera politikoak abiaraz ditzan gaur egungo krisialdi ekonomikoari aurre egiteko, parametro batzuei jarraikiz"

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2008ko urriaren 23an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren jarduera politikoak abiaraz ditzan gaur egungo krisialdi ekonomikoari aurre egiteko, parametro batzuei jarraikiz

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du beharrezkoak diren jarduketara politikoak abiaraz ditzan gaur egungo krisialdi ekonomikoari aurre egiteko, ondoko parametroei jarraikiz:

– Gobernuaren jarduteko ahalmen guztia jartzea herritarren giza eskubideen, enpleguaren eta enpresa-lehiakortasuna hobetzearen zerbitzuan.

– Adostasun politikoa sustatzea.

– Mintzakidetza areagotzea eta eragile ekonomiko eta sozialekiko elkarriketa sustatzea.

– Zeharkako politikak garatzea hezkuntzari eta prestakuntzari dagokionez, I+G+B, finantzaketa-tresnak, giza kapitala, azpiegiturak, produkzio eta zerbitzu sektoreen nazioarteratzea hobetzea, enpresa-kulturaren sustapena, fiskalitatearen eragina optimizatzea eta abar.

– Garapen ekonomiko iraunkorreko eredu berri bat, irekia eta adostua, taxutzea.

– Beharrezkoak diren adostasunak bilatzea eta horietan parte hartzea Nafarroako nahiz estatuko 2009ko aurrekontuak onesteko.

– Nafarroako gizarte ongizatearen sarea bermatzea, eta gizarte-murrizketak metodo gisa ekiditea. Espainiako Gobernuarekin lankidetzan aritzea politika ekonomikoari dagokionez.

– Ahal den neurrian leuntzea eta gutxitzea krisiak Foru Komunitatean dituen ondorioak, Nafarroako ekonomiaren berrabiada sustatuz.

Erabakia. Horren bidez, deklaritzen eta premiatzen da ezen Nafarroako Unibertsitate Publikoan egun aztertzen ari diren ikasketa-eskaintzaren berregituraketan, eta kasua bada NUPeko ikasketa-eskaintzari buruz egin beharreko eztabaida-foroan, Giza Zientzietako karrera ezartzeko aukera azter dadin.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2008ko urriaren 16an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, deklaritzen eta premiatzen da ezen Nafarroako Unibertsitate Publikoan egun aztertzen ari diren ikasketa-eskaintzaren berregituraketan, eta kasua bada NUPeko ikasketa-eskaintzari buruz egin beharreko eztabaida-foroan, Giza Zientzietako karrera ezartzeko aukera azter dadin."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2008ko urriaren 23an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, deklaritzen eta premiatzen da ezen Nafarroako Unibertsitate Publikoan egun aztertzen ari diren ikasketa-eskaintzaren berregituraketan, eta kasua bada NUPeko ikasketa-eskaintzari buruz egin beharreko eztabaida-foroan, Giza Zientzietako karrera ezartzeko aukera azter dadin

Deklaratzea eta premiatzea ezen Nafarroako Unibertsitate Publikoan egun aztertzen ari diren ikasketa eskaintzaren berregituraketan, eta kasua bada horri buruzko eztabaida-foroan, Giza Zientzietako karreran ondoko bi espezialitate edo ibilbideak ezartzeko aukera aztertuko dela:

A) Euskal filologia

B) Hizkuntza erromanikoen filologia, gehi karrera horretako gainontzeko ibilbide edo espezialitateak.

C) Bigarren hezkuntzako irakasleen prestakuntza masterra.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da administrazioak edonolako entitateekin sinaturiko itunetan klausula bat sar dezan urteroko maiatzaren 31 baino lehen zenbait kontabilitate agiri aurkeztera behartzen dituen.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2008ko urriaren 16an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da administrazioak edonolako entitateekin sinaturiko itunetan klausula bat sar dezan urteroko maiatzaren 31 baino lehen zenbait kontabilitate agiri aurkeztera behartzen dituen." Horren jatorria da Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztutako mozio bat, 2008ko maiatzaren 23ko 48. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratua.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2008ko urriaren 23an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da administrazioak edonolako entitateekin sinaturiko itunetan klausula bat sar dezan urteroko maiatzaren 31 baino lehen zenbait kontabilitate agiri aurkeztera behartzen dituen.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du klausula bat sar dezan administrazioak edonolako entitateekin sinaturiko itunetan, entitate horiek behartzen dituen urtero maiatzaren 31 baino lehen ondoko kontabilitate agiriak aurkeztera:

1) Entitate horrek ekitaldi ekonomiko horretan dituen aurrekontuak.

2) Aurreko ekitaldiko urteko kontuak, balantzeak eta galera eta irabazien kontua.

3) Kontu horien auditoretza, baldin eta halakorik badago, edo, bestela, Legebiltzarraren aldeko baimen espresa, hark egoki baderitzo Comptos Ganberari agin diezaion kontu horiek aztertzea.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da sentsibilizazio kanpaina bat egin dezan toki entitateek hezkuntzaren arloan duten eginkizunari buruz eta “Hiri Hezitzaileak” bezalako programei buruzko informazio kanpaina bat egin dezan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2008ko urriaren 16an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da sentsibilizazio kanpaina bat egin dezan toki entitateek hezkuntzaren arloan duten eginkizunari buruz eta “Hiri Hezitzaileak” bezalako programei buruzko informazio kanpaina bat egin dezan.”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2008ko urriaren 23an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da sentsibilizazio kanpaina bat egin dezan toki entitateek hezkuntzaren arloan duten eginkizunari buruz eta “Hiri Hezitzaileak” bezalako programei buruzko informazio kanpaina bat egin dezan

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Toki entitateek hezkuntzaren alorrean duten eginkizunari buruzko sentsibilizazio kanpaina bat egin dezan.

2. Hiri hezitzaileei eta antzeko programei buruzko publizitate eta informazio kanpaina bat egin dezan, toki entitateei zuzendua.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gizarte zerbitzuen arloko araudia gara eta doitu dezan, senar-emazteen ondare-ondasunen eta baliabide ekonomikoen titularkidetasuna babeste aldera.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2008ko urriaren 17an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gizarte zerbitzuen arloko araudia gara eta doitu dezan, senar-emazteen ondare-ondasunen eta baliabide ekonomikoen titularkidetasuna babeste aldera.”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2008ko urriaren 23an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gizarte zerbitzuen arloko araudia gara eta doitu dezan, senar-emazteen ondare-ondasunen eta baliabide ekonomikoen titularkidetasuna babeste aldera

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, gizarte zerbitzuen arloan indarrean den legedia garatu eta aplikatuz, egin beharreko araudi-garapenak eta -doikuntzak egin ditzan, senar-emazteen ondare-ondasunen eta baliabide ekonomikoen titularkidetasuna babeste

aldera ezkontzaren araubide ekonomikoa konkista edo ganantzialak diren kasuetan, baldin eta aldeetako bat egoitza batean badago eta, araudiak hala eskatuta, zor-aitorpena formalizatuta badu eta beste aldea ohiko bizilekuan bizi bada eta bere ondare nahiz diru baliabideen mende badago.

Arestiko aitortenaren bidez sortu eta jasandako zorra ezin izanen da ordainarazi, ohiko etxebi-

zitari dagokionez, beste bizikidea hartan bizi den bitartean; hortaz, zorrak ez du berekin ekarriko etxebizitza komunaren erabilera galaraztea..

Hartutako zorraren ordainketa, berriz, ezin izanen da hedatu guztizko dirusarreretara, eta, horrenbestez, pentsioa edo dirusarrera ohikoak baliatu ahal izatea bermatuko da beti, lanbidearte-ko gutxieneko soldatara bitarte.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da osasun arloan oinarrizko zerbitzuak doan eman diezazkien Nafarroan bizi diren herritar guztiei, eta osasun zerbitzuak berdintasun baldintzetan eta bizilekua kontuan hartu gabe eskuratu ahal izatea berma dezan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2008ko urriaren 17an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da osasun arloan oinarrizko zerbitzuak doan eman diezazkien Nafarroan bizi diren herritar guztiei, eta osasun zerbitzuak berdintasun baldintzetan eta bizilekua kontuan hartu gabe eskuratu ahal izatea berma dezan".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2008ko urriaren 23an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da osasun arloan oinarrizko zerbitzuak doan eman diezazkien Nafarroan bizi diren herritar guztiei, eta osasun zerbitzuak berdintasun baldintzetan eta bizilekua kontuan hartu gabe eskuratu ahal izatea berma dezan

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, osasun arloko legedi indarduna garatu eta aplikatuz, osasun arloko laguntza publikoari dagozkion funtsezko zerbitzuak, oinarrizkoak eta doakoak, eman diezazkien eta Nafarroako herri guztietako biztanleei, eta osasun-prestazio horiek egiazko berdintasun baldintzetan eman daitezen, zein ere den zerbitzua jasotzen duten herritarren bizilekua, bai euren ohiko etxebizitzan bizi badira bai zentro soziosanitario batean bizi badira, modalitate eta kasu guztietan, hala aldi baterako egonaldietan nola behin betikoetan.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, etorkizunean gizarte zerbitzuen zorroan koordainketako zerbitzutzat hartzen diren prestazioei buruzko sistema, baremo eta zenbatekoaren arau-garapena egiten duenean, ez ditzan bertan sar egoitza eta zentro soziosanitarioei eskatzen zaizkien osasun-langile eta -zerbitzuen kostuak, Nafarroako Osasun Zerbitzuak eman eta ordainduko baititu, zuzenean nahiz itun bidez, Nafarroako aurrekontu orokorren kargura.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Sodenari eska diezaion bere egoitza soziala Mendillorriko jauregian eraikitzeko asmoa bertan behera uzteko.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2008ko urriaren 17an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Sodenari eska diezaion bere egoitza soziala Mendillorriko jauregian eraikitzeko asmoa bertan behera uzteko." Horren jatorria da Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztutako mozio bat, 2008ko ekainaren 13ko 55. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratua.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2008ko urriaren 23an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Sodenari eska diezaion bere egoitza soziala Mendillorriko jauregian eraikitzeko asmoa bertan behera uzteko

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Sodenaren instalazio berrieta-

rako Mendillorriko jauregia ez den beste kokaleku bat bila dezan, eta eraikin hori utz dezan herritarren erabilera orokorretarako; hau da, kultura-jardueretarako, herritarrei harrera egiteko edo antze-koetarako.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du bila dezan, Sodenarekin batera, enpresa horren ezaugarrietarako egokiagoa den kokalekuren bat, lotuagoa egonen dena I+G+Bko zentro edo azpiegiturekin, edo enpresen jarduerari laguntzekoekin, eta exekuta ditzala dagoeneko Nafarroa 2012 Planean horretarako jasota dauden inbertsio-aurreikuspenak.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du herritarren erabilerei buruzko plan bat presta dezan Mendillorriko jauregirako, Iruñeko Udalarekiko adostasuna bilatuz, jauregiak eskaintzen dituen aukerak baliatzeko bidea emanen duena.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da atxiki dakion Osasun eta Kontsumo ministroak autonomia erkidegoei eskainitako osasunaren aldeko itunari.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2008ko urriaren 17an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da atxiki dakion Osasun eta Kontsumo ministroak autonomia erkidegoei eskainitako osasunaren aldeko itunari"

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2008ko urriaren 23an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da atxiki dakion Osasun eta Kontsumo ministroak autonomia erkidegoei eskainitako osasunaren aldeko itunari

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du atxiki dakion Osasun eta Kontsumo ministroak autonomia erkidegoei eskainitako osasunaren aldeko itunari.

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten dio Ingurumen Ministerioari eta, zehazki, Kalitatearen eta Ingurumen Ebaluazioaren Zuzendaritza Nagusiari Gasteiz-Castejón-Muru Artederretako 400 kW-eko linea elektrikoaren aurka dagoela, ingurumen- eta paisaia-intereseko guneei eraginen dizkien kalteak direla eta.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Nafarroa Bai parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Nafarroako Parlamentuak adierazten dio Ingurumen Ministerioari eta, zehazki, Kalitatearen eta Ingurumen Ebaluazioaren Zuzendaritza Nagusiari Gasteiz-Castejón-Muru Artederretako 400 kW-eko linea elektrikoaren aurka dagoela, ingurumen- eta paisaia-intereseko guneei eraginen dizkien kalteak direla eta".

Legebiltzarrak 2008ko urriaren 16an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2008ko ekainaren 6ko 53. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko urriaren 23an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Mozioa. Horren bidez, Estatuko Gobernuak premiatzen da abeltzaintza-sektorearen eskaerei erantzun diezaien, bereziki 2008ko Gizarte Segurantzako kuotak barkatzeari dagokionari.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Nafarroa Bai parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Estatuko Gobernuak premiatzen da abeltzaintza-sektorearen eskaerei erantzun diezaien, bereziki 2008ko Gizarte Segurantzako kuotak barkatzeari dagokionari".

baztertzea. Mozio hori 2008ko ekainaren 13ko 55. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko urriaren 23an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da diru nahikoa jar dezan abeltzaintzako ustiategi eta sistema iraunkorretarako laguntzak arautuko dituzten jardueretarako.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Nafarroa Bai parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Nafarroako Gobernuak premiatzen da diru nahikoa jar dezan abeltzaintzako ustiategi eta sistema iraunkorretarako laguntzak arautuko dituzten jardueretarako".

baztertzea. Mozio hori 2008ko ekainaren 13ko 55. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko urriaren 23an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete 47,00 euro	
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko 1,25 »	
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko 1,40 »	